

## **BALIO PROPOSAMENA**

- Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Gaur egun egoera energetiko zail baten aurrean aurkitzen gara: alde batetik geroz eta energia eskaera handiagoa dago, eta bestetik, energia iturri gehienek baliabide urriak dituzte eta beren erabilerak ondorio larriak dituzte ingurunean. Hazkunde demografiko eta ekonomikoak energia erabileraren hazkundera dakar, eta energia hori lortzeko ditugun moduek (normalean erregai fosilak), eragin handia dute gure ingurunearengan.

Gure enpresak energia berriztagarriak eskaintzen ditu energiak ingurumenaren gain duen eragina murrizteko. Energia berretagariak baliabide ugari eta garbiak dira eta ez dituzte negutegi-efektua sortzen duten gasik produzitzen ezta ingurunearentzak kaltegarri diren beste gasik isuritzen.

- Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Lau arrazoi nagusi daude energia berriztagarriak erabiltzeko:

1. Berotze globalaren murrizketa: energia berriztagarriek ez dituzte gas kutsakorrik sortzen.
2. Guztien osasuna hobetzen dute: Osasunaren gaineko inpaktu negatibo gehienak airearen eta uraren kutsaduratik datoz, energia garbiek sortzen ez duten kutsadura.
3. Lanpostu gehiago eta onura ekonomikoak sortzen dituzte: energia berriztagarriaren industriak eskulan gehiago behar du. Adibidez, eguzki-panelek adituak behar dituzte instalatzeko, eta parke eolikoek teknikariak behar dituzte horiek mantentzeko. Horrela, onura sozial bat sortzen da lanpostu gehiago eskaintzearen bitartez.
4. Energiaren prezioa egonkortzea: Egia da hasieran inbertsio nahiko handi bat egin behar dela instalazioak sortzeko eta enpresa martxan jartzeko, baina lehen fase hau igarota, oso kostu txikian jardun dezakete, energia garbiko teknologia gehienentzat erregaia doan baita.

Gure bezeroak sostenibilitatearen alde dauden pertsonak dira, produktu batengatik gehiago ordaintzeko prest daude, kotxe, arropa, janari... ekologiko eta iraunkorretan inbertitzen dute. Guk, gure lehiakideek ezbezala, saltzen dugun energiaren efektibitate eta erabilgarritasuna frogan jartzen dugu hostal batean bezeroek ikus dezaten bere begiekin nola funtzionatzen duen egunerokoan.

- Gure balioa:

- Kuantitatiboa: prezioa
- Kualitatiboa: eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna

- Lehiakideengandik bereiz gaitzke honako bitartez:

- Berritasuna
- Prezioa
- Erabilerraztasuna

